



LASARTE-ORIAKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Lasarte-Oriako Udalak arbuaitu eta gaitzetsi egiten du Oriarte Institutuaren barruan atzo egindako pintada. Irainak, deskalkifikazio pertsonalak, gorroto-mezuak eta gure estatuaren historia modernoko etapa okerrenetako bati egindako bibak gaitzesgarriak dira argi eta garbi.

Duela urte batzuetatik hona, mezu xenofoboak, dibertsitate sexualaren kontrakoak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borrokaren kontrakoak eta desberdintasunarekiko gorrotozko mezuak ugaritzen ari dira, ideologia ultraeskuindarreko alderdiak gero eta sostengu handiagoa duten heinean.

Inoiz existitzeari utzi ez dioten talde horien diskurtsoek gizartean eragin handirik izatea lortzen ez bazuten ere, egunetik egunera publikoagoak izaten ari dira, botere ekonomiko eta komunikabide jakin batzuen babesarekin, haien mezuak ez deslegitimatzen laguntzen baitute eta, Estatuko kasuan bezala, eskuineko gobernuak mantentzen baitituzte hainbat komunitate autonomotan eta udalerritan.

Tamalez, feminismoaren borrokarenganako, LGTBI pertsonenganako eta emigranteenganako gorrotozko ekintzak egunez egun areagotzen direla ikusten ari gara. Tristura handiz ikusten dugu, halaber, zenbait instituzio eta alderdi politikotatik ez direla irmo arbuaitzen ari gorrotozko ekintza eta diskurtso horiek, espero izan zitekeen bezala.

Pertsona eta instituzio publikoak berdintasunaren, demokraziaren eta justiziaren balioak gotorki defendatu behar ditugu, dibertsitatearekiko errespetua, berdintasunaren sustapena eta instituzio demokratikoak indartzu eta eskubide pertsonalen eta sozialen arloan lortutako aurrerapausoetan muturreko jarreretatik atzera eginarazi nahi ditugun bidea itxiz.

Horregatik, Lasarte-Oriako Udala, lasarteoriatarrekin batera, berdintasunaren, demokraziaren eta justiziaren balio horien alde lan egiten jarraitzea konprometitzen da, mugimendu feministaren berdintasunaren aldeko borroka, dibertsitate sexualaren errespetuaren aldeko borroka eta inmigranteenganako errespetuaren eta integrazioaren aldeko borroka aldarrikatuz, defendatu beharreko balio moduan eta gizarte gisa aberasten gaituen balio moduan.

Lasarte-Orian, 2021eko irailaren 9an.

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria muestra su repulsa y rechazo a la pintada realizada ayer dentro del Instituto Oriarte. Los insultos, descalificaciones personales, mensajes de odio y vivas a una de las peores etapas de la historia moderna de nuestro estado son claramente reprobables.

Desde hace unos años los mensajes xenófobos, contra la diversidad sexual y la lucha por la igualdad de hombres y mujeres, y los mensajes de odio a la diferencia están proliferando en la medida en que partidos de ideología ultraderechista van aumentando su apoyo.

Estos grupos, que nunca han dejado de existir pero cuyos discursos no lograban hacer mella en la sociedad de manera importante, están siendo día a día más públicos, apoyados por ciertos poderes económicos y medios de comunicación, que contribuyen a la no deslegitimación de sus mensajes, y como en el caso del Estado, manteniendo gobiernos de la derecha en varias comunidades autónomas y municipios.

Tristemente estamos viendo que los actos de odio hacia la lucha del feminismo, hacia las personas LGTBI y a las personas emigrantes aumentan día a día. Con tristeza, también, observamos que desde ciertas instituciones y desde ciertos partidos políticos, no se están siendo rotundos en el rechazo a estos actos y discursos de odio, como cabría esperar.

Las personas e instituciones públicas debemos hacernos fuertes en la defensa de los valores de igualdad, democracia y justicia, reforzando el respeto a la diversidad, el fomento de la igualdad y las instituciones democráticas, cerrando el paso a quienes desde posiciones extremas pretenden que retrocedamos en los avances obtenidos en materia de derechos humanos y sociales.

Por ello, el ayuntamiento de Lasarte-Oria se compromete en seguir trabajando, junto a los y las lasarteoriatarras, en la defensa de dichos valores de igualdad, democracia y justicia, proclamando las luchas por la igualdad del movimiento feminista, la lucha por el respeto a la diversidad sexual y por el respeto e integración de las personas inmigrantes, como un valor a defender y que nos enriquece como sociedad.

En Lasarte-Oria, a 9 de septiembre de 2021.